

Autismoa zer den galdetuz gero ia gehienok eman-go genuke gutxi gorabeherako azalpena bestee-kin harremantzeko zailtasuna oinarri duen gaitzari buruz. Kausa eta tratamenduei dago-kionez, ordea, ez dago erantzun borobilik, nahiz eta asko aurre-ratu den ikerketan. Olga Peñaga-rikano EHUKo Medikuntza eta Odontologia Fakultateko ikerla-riak horretan zentratu du bere ibilbidea, zehazki, autismoaren kausa neurobiologikoen azter-ketan eta berau tratatzeko oxi-tozina sistemaren manipulazio-an. Baina goazen hasierara.

Autismoa, printzipioz, jaio-tzetik garatzen da beti, garapen neurologikoari lotuta dagoen heinean. Hau da, ez da urteak igaro ahala sortzen den gaitza. Bere diagnostikoa, gaur egun, eskusiboki portaeran oinarritu-ta dago, ez baitago sindromea identifikatzen duen froga gene-tikorik edo biomarkadorerik. Peñagarikanok azaltzen duenez, lehen ohikoa zen 3-5 urte bete arte ez detektatzea, baina gaur egun frogak gero eta aurrera-tuago daude eta hilabete gutxi-rekin diagnostika daiteke.

Interakzio sozialarekin lotuta-ko hutsuneek karakterizatzen dute autismoa eta horrekin lo-tutako bestelako sintoma ba-tzuk ere baditu: portaera errep-iakorrak, hiperaktibitatea, eta abar. «Autismoa duten haur gehienek hartzen dute medika-menturen bat, baina normalean beste gaitz batzuk tratatzeko onartutako botikak dira, nahiz eta autismoarekin lotutako sin-toma batzuk ere hobetzen di-tuzten. Adibidez, suminkortasu-na edo hiperaktibitatea hobetu dezakete, baina ez dira eskusi-boki autismoa tratatzera bidera-tutako medikamentuak», nabar-mendu du Peñagarikanok.

MAITASUNAREN HORMONA

Hargatik, sindromearen sorre-ran eragin dezaketen kausa neu-robiologikoak ikertu eta autis-moari lotutako defizitak zeintzuk diren aztertu nahi ditu, ondoren horiek tratatzera bide-

**OLGA
PEÑAGARIKANO**

EHU-KO IKERLARIA

Maitasunaren hormona deitzen diote eta gizakion interakzio sozialari estuki lotuta dago; oxitozina faltak autismoan duen eragina ikertzen ari da Olga Peñagarikano, ondoren tratamendua emateko.

Iraia Oiarzabal Mujika

«Autismoa duten
pertsonen
interakzio soziala
hobetu egiten da
pazienteak
oxitozinarekin
tratatzean»

ratutako botikak garatu ahal izateko.

Horretarako oxitozinan jarri du arreta. Modu naturalean sor-tzen dugun hormona da oxito-zina, maitasunaren hormona ere deitua, eta erreprodukzioa-ren hainbat atalekin lotuta da-go, erditzearekin eta edoskitzea-rekin esaterako. Era berean, portaera sozialarekin ere badu lotura. «Orain arte egindako en-tsegu klinikoetan ikusi da autis-moa duten pertsonen interakzio soziala hobetu egiten dela pa-zienteak oxitozinarekin trata-tzean. Aldi berean, oxitozina sis-temarekin lotutako urritasunek autismoaren garapenean zeri-kusia izan dezaketela ikusi da. Ez kasu guztietan, autismoa oso zabala delako eta kausa asko izan ditzakeela frogatu dela-ko –genetikoak, ingurunearekin lotutakoak, eta abar–, baina uste dugu pazienteen parte bat oxi-tozina sistemaren urritasun ba-tek kaltetua izan daitekeela».

Orain arte autismoa ikertzeko egindako entseguetan, abere eredu ezberdinei –normalean saguak izaten dira– autismoare-kin lotura duen gene bat kendu zaie eta ikusi izan dute anima-liok oxitozina sisteman gabe-ziak dituztela. Saguei oxitozina ematen zaienean euren portae-ra soziala hobetu egiten dela az-pimarratu du Peñagarikanok.

Baina zer da oxitozina? Maita-sunaren hormona deitzen zaion horrek, deiturak iradoki dezake-enaz harago, gure portaeran pi-su garrantzitsua du. «Oxitozina-ri buruz orain arte dakiguna da garuna garatzeko prozesu biolo-giko askotan inplikatuta dagoe-la. Neuronen artean ezartzen di-ren konexioetan eragina dauka, esaterako. Konexio horiek ezin-bestekoak dira komunikatzeko edo ikasketa prozesuetarako», azaltzen du.

Autismoarekin lotuta, kon-tuan izan beharreko lehen ohar-tarazpen bat egiten du EHUKo ikerlariak: garunean bi neuro-transmisore nagusi daude, bata estimulatzailea eta bestea inhi-bitzailea. Oinarri gisa zehaztu dezagun burmuinaren estimu-lazioaren eta inhibizioaren arte-an oreka egon behar dela, bien



arteko desoreka batek interakzio sozialean arazoak sor ditzakeelako. «Gizakion garapen prozesuan zehar, neurotransmisore inhibitzailea (Gaba deitzen dena) estimulatzailea da –hala behar duelako– eta oxitozinak hori aldatu egiten du jaio osteko lehen egunetan, inhibitzaile bihurtzeko. Zenbait abere eredu-tan ikusi da aldaketa hori ahalbidetzen duen neurotransmisore alteratuta dagoela. Horren ondorioz, inhibitzaile bihurtzeko prozesua ez da ematen edo beranduago ematen da, oreka apurtuz. Nire hipotesia da oxitozina mailaren defizitak horretan eragina duela», argitu du Peñagarikanok. Arestian aipatu bezala, desoreka horrek ondorioak dakartza pertsona batek inguratzen duenarekin elkarre-ragiteko eta komunikatzeko duen gaitasunean.

Zer egin hipotesi horren aurrean? Oxitozina mailaren defizitak autismoaren garapenean eragina izan dezakeela baieztatzen bada, nolabait prebenitu al daiteke? Peñagarikanoren ustez, ikerketak neurri batean prebentziorako balio dezake. Bere hitzetan, erditzea baino lehenago haurra oxitozinarekin tratatuta, neurotransmisore estimulatzailetik inhibitzaileira eman beharreko aldaketa hori normala izango litzateke.

Horixe izango da bere proiektuaren ardatza eta, azaletik azalduta, bi fase izango ditu. Lehenengo, abere eredu erabiliz, jaio aurretik eta jaio osteko lehen egunetara oxitozina sistema nola dagoen aztertuko du. Horretarako lehenbizi Gaba neurotransmisore inhibitzaile bihurtzeko bidean oxitozinak duen papera ikusiko du.

IBILBIDEA

1974an jaio zen Tolosan. Bere ibilbide profesionala autismoaren inguruko ikerketan zentratu du, besteak beste AEBetako Kaliforniako Unibertsitate prestigiotsuan. 2015etik EHUko Medikuntza Fakultatean dihardu.

Bigarren fase batean, defizit hori emango dela hipotesizat hartuta, hori aldatzen saiatuko da oxitozina tratamenduen bitartez.

TRATAMENDU PERTSONALIZATUA

Heldutasunean ere oxitozinak paper garrantzitsua jokatzeko du portaera sozialari dagokionez. Peñagarikanok aipatzen duenez, abere eredu-tan oxitozina kenduz gero euren portaera defizitak aurkeztu dituzte. Azalpen logikoa du: «Bi pertsonak sozialki elkarre-ragiten dutenean oxitozina liberatzen da eta horrek plazera sortzen du, horregatik hautematen dugu interakzio soziala zerbait positiboa bezala. Zenbat eta oxitozina gutxiago askatu, gutxiago gustatuko zaizkigu interakzio sozial horiek».

Autismoaren inguruan jorratzen ari diren ikerketa arlo asko

daude, neurotransmisore ezberdinekin lotuta. Oxitozinarena da bat, baina badira serotonina sistemaren inguruko hipotesiak ere. Neurotransmisore hori portaeren inhibitzailea da eta, besteak beste, aldartea, loa, sexu grina eta gosea erregulatzen ditu. Era berean, Peñagarikanoren ikerketa inhibitzioan dauden defizit ezberdinetan zentratzen bada ere, estimulazioarekin lotutakoak era badaudela gaineratu du.

«Oraingoz argi dagoena honakoa da: ez dugu aurkitu behar autismoa tratatu eta sendatzeko botika eksklusibo bat. Harremana dauka paziente bakoitzaren kausa konkretuekin, horregatik, oraingoz, medikamentu pertsonalizatu-tan zentratzen ari gara», gaineratu du. Hots, luzea bezain zabala dela autismoari sendagaia bilatzeko bidea.

